

ORIXEREN ITZULPENAZ

Xabier Mendiguen

Aurten bete dira 25 urte Nikolas Ormaetxea, “Orixe”, “euskal letren aitagoia” hil zela. Mitxelenak gogoratu izan digunez, euskal alorrean oraindai-nokoan inork burutu duen lanik eskerga eta gaitzena egin duen gizon honek, alderdi eta gai asko ukitu zituen: aszetika eta mistikatik hasi eta hizkuntzalari-tzarainokoak literaturgintzan zehar.

Besteak beste, itzulpenaren alorrean burutu zuen lanak beti izan du aipamen berezia Orixeren obra ugarian.

Euskal itzulpenaren historia bat oraindik eginkizun dagoelarik, puntuz-puntuko aurrelanak erruz egin beharko ditugu ikuspegi orokor baten nondik-norakoa taxutu arte eta ondoren eskaini Orixeri buruz eskaini nahi nituzkeen gogoetek egunen batean mamituko den lanaren aurre-pauso xume izatea beste helbururik ez dute.

Aurrena zenbait garaikidek Orixeren itzulpengintza nola ikusi duen ematen saiatuko naiz, bere burua itzultzaileak berak nola ikusten zuen ere aipatuz. Ondoren zenbait itzulpen aztertuko ditut eta, azkenik, mundu-mailako itzulpen historiaren markoan kokatzen ahaleginduko naiz.

Orixeren itzulpengintzaz zenbait iritzi

1961ean, “*Orixeren heriotzean*” izeneko artikuluan (1) Mitxelena jaunak gorazarre gogoangarri bat eskaini zion Orixeko idazle haundiari haren lana eta bizitzaren aipamena eginez. Besteak beste, Orixeren itzultzeko trebetasuna ere aipatu zuen: “Zenbatetaraino jabetu zen hizkuntzaz, itzulpenek ematen digute aditzera, bere baitarikako idazlanek baino areago, lotuago baitago beti itzulketan ari dena bere ahoz, horrelako lokarrik gabe, mintzatzen dena baino. Eta lokarriak kate gogor bihurtzen dira itzul-lana neurtitzetan egin behar denean”. Eta ondoren latinezko zenbait himno euskaratzean erakutsi zuen maisutasuna agerian jartzen digu txatal bat eskainiz. Eta latinzale haundiaren itzulpenetan ageri den ereduaz dio: “Eredu ederra daukagu Orixegan itzulkerarako, baina

(1) Egan, 1961, (4-6), 157-163 or.

—eta hau ere gogoan eduki behar dugu beti— gutxi batzuen mailako eredia. Itxaropen berria sortu digu gure hizkuntzaren gaitasunari buruz, uste genduen bezain traketsa eta moldakaitza ez dela argi baino argiago —egitez, eta ez hitzez— erakutsi digunean. Edozein gauza, baita izkutuena eta zailena ere, eman daiteke euskaraz, euskara garbiz, baina ez du edozeinek emango, leherrenak egiten baditu ere. Gaitzago da oraindik euskaldun ikasi batentzat, askozaz ere gaitzago, inguruko erdara batetik euskarara itzultzea, erdara horietako batetik bestera baino. Ez digu egia mingarri hori estali behar Ormaetxearen “virtuosismo” miragarriak”.

Handik lau urtetara “**Orixen omenaldi**” izeneko liburuan, “*Orixen Euskertze*” (2) titulupean Ibinagabeitia’r Andimak artikulu luzea eskaini zion Orixeren obraren alderdi honi. Bertan 1921ean Durangoko “Lenengo Euskal-egunetan” Orixek emandako hitzaldiaren aipamena egiten du: “Nekazarien eta ikazkinen izkuntza au olakoa denik (ain egokia) uste al-du norbaitek? Gu bagaudeke bai atzean, ez gure izkuntza, erriko izkuntza. Zer esango luke euskaldun erdelzale orrek, nik esanen banio nongonaiko izkuntzara baino gure onetara obeki itzuli ditezkeela Iliada eta Odisea? (L.E.I., 36-37 or.).

Euskarak berez ornen duen gaitasun honen aitormena edo fedezko egintza burutu ondoren, itzultzaile onak beharrezko du “idazlearen doairik gallena” eta “itzultzailearen bidelaguna” den zerbait bere eginkizuna gisaz burutze-ko. “Sen gabe ez diteke itzulpen onik egin, ezta gauza den idazlanik ere. Eta Euskal-sen ori, “Orixen” zenaren idaz eta itzul-lan guztietan nabarmen ageri zaigu” (3). Ondoren artikulua egileak itzultze-lanaren gogorra aipatzen du, bereziki testuaren itzulpenaren zintotasuna eta edertasuna lortzeari dagokionean. Orixen bi gaitasun horien uztarketa lortu dutenen artean ezartzen du, horretarako nahitaezkoa den bi baldintzak ongi betetzen zituelako, hots: jatorrizko eta itzulpeneko hizkuntzak ongi jakitea. Bide batez, hemeretzigarren mendeko itzultzaileen kritika egiten du, Orixeren era jatorrarekin kontrajarriz, eta dio “itzulpen exkax eta gaiztoak” burutzen zituztela (Arrue eta Antiarenak, esate baterako, bidegabeki ahaztuz) zintotasuna hitzez hitz erdaratik euskaratzea zela pentsatuz. Adibide gisa, Iztueta zaldibitarraren kasua dakar, bere kabuz idatzitako lanak bikainak zituelarik, egindako itzulpen batzu irakurtezinak dituenarena. Ibinagabeitiak, “erderarekiko ioputasuna” deitzen duen hau, Orixeri ez dagoela egozterik aitortzen du. Gero “**Jesus’en Biotzaren Deya**” (1917-1937) aldizkarian argitara eman zituen lehen itzulpenetatik hasi eta 1956an agertu zen “**Agustin Gurenaren Aitorkizunak**” itzulpena arteko ibilpide eman-korraren azterketa egiten du. Orixen berak ere hobereztat zeukan azken itzulpen honetaz dio: “Aurrerago aztertu ditugun itzulpenetan argi bezin garbi ikusita daukagu aren itzulketarako trebetasuna, baña oraingo itzulpen onetan lenagoko marra garaienak zearo erretzen ditu, euskera arruntez esango gurekenez *jo ta pasa egiten du*” (4).

Obra itzuli honi dagokion lekuan emango diogu aztertualdi bat.

1976an, “**Zer dugu Orixeren kontra**” argitaratzen du Joxe Azurmendi, euskal poeta eta saiakeragile ezagunak. Liburu honetan, Orixeren euskaraz ari den atalean “Hitz teknikoak, hizkera teknikoak” sailean, iritzi hau agertzen du

(2) Batzu - Orixen-omenaldi, Donostia, 1965.

(3) Op. cit. 90-91 orrialdeak.

(4) Loc. cit., 113 or.

Orixeren itzulpenaz: “Orixeren haunditasuna batez ere itzulpenetan agertu oi da (hizkuntzaren jabetasun kontuan, alegia). Orixe, ordea, itzulpenetan ere literato gisa ibili zaigu, itzultzekoa birkreatuz, eta kreaziorako beharrezkoak uste zituen arauen eran —esko eran— kreatuz hain zuzen. Itzultzaile onak hori egin behar omen du”. Eta aurrerago: “Orixek giza eskubideen deklarazioa itzuli zuen, betiko bere eran itzuli, sail honetako hizkerak bestelakoa izan behar zuenaz ohartu gabe ausaz beste lege batzuk gobernatzen dutenaz, hizkerara honek hitzen balioa neurtzeko bere neurriak dituenaz (arbitrarioak, nahi bada; ez hizkuntzaren “berezkoak”, behintzat). Daukaguna Orixeren deklarazio bat da, ez ONUrenik” (5).

Oraindik orain, SENEZ, Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkarian, “*Orixeren itsu-mutila*” titulupean, *El Lazarillo de Tormes* obraren euskarapenaren azterketa kritiko bat burutzen du Pedro Iturriozek. Itzultzailearen moralismoa aipatzei hasi eta beste zenbait hautapen eztabaidagarri nabarmendu ondoren, honela amaitzen du artikulua: “Bestalde hizkuntzaren jabetasun kontuan, Orixeren handitasuna itzulpenetan azaltzen da batipat, arlo honetan literato antzera jokatu du jatorrizkoa birkreatuz, baina bere iritzien arabera, gauzak aldatuz, modalduz” (...) “Idazlan guztiek, Orixeren printzipioz, ulergarriak izan behar dute, edozeinek ulertzekoak eta horretarako sarritan gehiegi erraztera darama, beste batzuetan egokitzera; baina horrela testua gaizki ulertzeko arriskuan jartzen du irakurlea, ez bait ditu gauzak zehatz esaten eta interpretazio gehiagora bultzatzen du. Orixerentzat, euskarak dohain bereziak zituen eta ez zuen hizkuntza teknikoaren eta arrumaren arteko diferentziarik ikusten edo gutxieenez edozein etxeoandre edo artzaik ulertzekoa egin zitekeela uste zuen” (6).

Orixeren itzulpenari buruz 25 urtean zehar idatzi diren lau iritzi hauek alderatzean, garbi ikusten da ikuspuntuak aldatuz joan direla itzulpenaren funtzioaz, Orixerentzat eta haren garaiko zenbaitentzat hemeretzigarren mendeko zenbait itzultzaileen lana “exkax eta gaiztoa” agertzen zen bezalaxe. Honelakorik aurreragoko mendeetan ere gertatu izan da euskal itzultzaileen eta munduko beste itzultzaileen artean ere.

Euskararen eremuko esperientziari bagagozkio, XVII. mendean Silvain Pouvreauk “**Gudu Espirituala**” eta “**Philothea**” euskaratu zituelarik, hurrengo mendean Haramederrek desegokitzat baztertu eta berriko euskaratzeari ekin zion. Izan ziren gerora Haranederren itzulpenarekin ados ez zeuden garbizaileak. Historia hau atergabe errepikatu da Mendebaldeko nazio-hizkuntzen artean: garai bakoitzak bere joera bereziak ezarri ditu itzulpengintzari dagokionean, aldiari aldiko pentsamolde eta premien arabera. Beraz itzulpenaren izate historikoaren aurrez-aurre jartzen gaitu guzti honek, ondorengo sailean aztertzen saiatuko garen auziaren aurrean. Baina azter dezagun aurrena Orixeren itzultze moeta, garai desberdinetan burutu zituen lanei begiratu bat emanaz.

Orixeren itzulpenak

Orixek itzulpen ugari burutu zituen bere bizitzan zehar eta lan izugarria litzeteki denak banan-banan aztertzea eta ikertzea. Guk, geure aldetik, hiru

(5) AZURMENDI, J. Zer dugu Orixeren kontra, Oñati, 1976, 145 or.

(6) Cf. Senez, 2. zenbakia, 1985 iraila, “Orixeren itsu-mutila” P. Iturrioz, 112-113 orrialdeak.

garai desberdinetako lanak aipatu edo arakatzeari ekingo diogu. **“Tormes”ko Itsu-mutilla** (1929). **“Gizonaren eskubidegaien Aitorkizuna”** (1949), **“Urte guziko Meza-Berperak”** (1950), **“Agustin Gurenaren Aitorkizunak”** (1956).

“El Lazarillo de Tormes” obraren euskarapenez arestian argitaratu du SENEZ aldizkariak artikulu interesgarri bat P. Iturriozek idatzia, eta bertan ageri diren ikuspegiekin ados gaudenez gero, edukinaren laburpen bat eskaintzera mugatuko gara.

Garai hartan aski hedaturik zegoen moralismo paternalistaren ondorioz jatorrizko zenbait esamolde aldatu edo bigundu egiten ditu (**hideputo** - doilorkumea). Baliapide literarioei dagokienean jatorrizko testua nahikoa libreki hartzen du eta zentzuzko itzulpenera jotzen du pasarte askotan. Ikus adibidez hemengo pasarte hau: **“Justó muy ruinmente el señor don Fulano, y dio el sayete de armas al truhán, porque le loaba de haber llevado muy buenas lanzas: ¿qué hiciera si fuera verdad?”**

(“Halako jaun batek zaldi-guduka barregarria egin eban, eta barritsuari gudu-jantzia eman eutson, guztiz ondo egin ebala esan eutsolako. Zer emango egia izan balitz?”)

Beste zenbait kasutan zentzu bikoitza duten esamoldeak galdu egiten dira purismoaren eraginez edo zentzu bakarrean hartu direlako esanahiak: **“... confesó y no negó y padesció persecución por justicia”** (“... eta zuzentasunagatik larrialdiak igaro ebazan”. Nabarmen dago gaztelaniazko “padescer persecución por” esamoldearen oihartzun biblikoa galdu egin dela “larrialdiak igaro” esatean eta “justicia” hitzak dituen bi zentzuak (zintzotasuna eta ordenu-indarrak) eman zitezkeela “Justizia” hitzari eutsiz, baina “zuzentasuna” hautatzean murriztu egin da jatorrizkoaren indarra.

Sintaxiari dagokionean, berriz, Orixeren itzulpenak askozak egituratze bakanagoa eta hautsiagoa darabil, jatorrizko testuarenaren aldean.

“Gizonaren eskubidegaien Aitorkizuna” (1949) testuaren itzulpena dela-eta, nekez esan daiteke benetako itzulpena denik. Horretarako aski da hedadura soilari begiratzea. Gaztelaniazko pasarteak hogeai lerro dituelarik, euskarapenak hamabi baizik ez ditu, beraz oso zentzu zabalean erabil daiteke “itzulpen” hitza testu laburbildu eta berrinterpretatua den euskarazko bihurpen hau izendatzerakoan. Horregatik ez dakit zenbateraino merezi duen **personalidad jurídica**-ren orde agertzen den **nor-izana** edo **seguridad socialen** orde **gizartetik datorren segurantzia** baliokide izan litezkeela esatea ere. Bistan dago Orixeren euskarazko testua gaztelaniara edo beste edozein hizkuntza modernotara atzera itzuliko balitz jatorrizko **“Giza-Eskubideen Deklarazioarekin”** oso zerikusi gutxiko testua sortuko litzatekeela, eta nabarmen geratzen da Orixek ez diola tratamendu desberdinik ematen testu pragmatico honi literarioagoak diren beste zenbait testuren aldean. Funtsean modu eta baliapide beretsuak erabiliz egindako itzulpena da.

“Urte guziko meza-bezperak” obraren itzulpenari zegokionean izandako gorabehera berri hitzaurrean ematen digu. Argi zeukan lan zaila burutu behar izan zuela eta euskara “mordolloa” eta “garbiaren” arteko tiranduran oreka lortzeko bere buruari eta bere iritziei uko egitetik hasi behar zuela. Euskaldunaren “kontentagaiztasuna” azpimarratzen du hizkuntzari dagokionean. Hitzegiaren erabilerari dagokionean, bitara jokutzen du: erdaratiko maileguak onartuz eta hitz zaharrak adiera berrian erabiliz, baina esanahiari argitasuna ez kentzeko hitz zaharberitu asko elkarren ondoan ipini gabe. Baina esan dugu-

nak itzulpenaz baina berri gehiago ematen digu darabilen hizkuntz ereduaz. Ikus dezagun latinezko pasarte baten euskal itzulpena; Hausterre eguneko hautsa bedeinkatzean esaten zen bigarren otoitza da (7):

“**Otoi.**— *Pekatarien eriotza ez-baia damua nai duzun Jauna; begira ur'ikaltsu gure aultasunari, tal umiltasunerako ta barkamendurako buruan artu nai dugun auts au on+etsi ezazu, ar'en. Eta, auts general ta auts biurtuko general baitakigu, emai-guzu pekatuen barkapena ta damutu-eri emango zaien saria. J. K. Gure Jaunagatik. E. Ala bedi.*”

“**Orémus.**— *Deus, qui non mortem, sed poenitentiam desideras peccatorum: fragilitatem conditionis humanae benignissime respice; et hos cineres, quos causa proferendae humilitatis, atque promerendae veniae, capitibus nostris imponi decernimus bene+dicere pro tua pietate dignare: ut, qui nos cinerem esse, et ob pravitatis nostrae demeritum, in pulverem reversuros cognoscimus; peccatorum omnium veniam, et praemia poenitentibus repromissa, misericorditer consequi mereamur. Per Christum Dominum nostrum. R. Amen*”.

Jatorrizkoarekin alderatuz gero ideia, oro har, ongi ematen duela nabari da baina konparaketa estilistiko zehatzean sartuz gero arrazoi handiegirik gabe alde batera utzitako osagaiak euskaratu gabe aurkitzen ditugu euskerapenean.

fragilitatem conditionis humanae = *gure aultasun* itzultzen du
proferendae eta **promerendae** aditzak ez ditu itzultzen
pro tua pietate dignare = ez du itzultzen
ob pravitatis nostrae demeritum = ez du itzultzen
omnium veniam = *omnium* ez du itzultzen
praemia poenitentibus repromissa, misericorditer consequi mereamur = emai-guzu... damutu-eri emango zaien saria
repromissa, misericorditer = ez ditu itzultzen

Testu honetan euskaratu gabe geratu diren hainbat hitz itzultzeko euskarak ez du inolako zailtasunik, ez gaur eta ez Orixeren garaian, eta meza liburuan dagoen bezala itzulirik geratu bada, Orixek egin zuen interpretazio hautazkoarengatik bakarrik izan dela aitortu behar da. Badirudi, hitzaurrean dioenez, sinetsirik zegoela “*inguruko erriek itzen burrunbarekin, soiñuarekin etsitzen dutela askotan*” eta euskaldunok sasarte eta hostraila guztiak alde batera utzirik, alera edo mamira joaten gara.

Literatura eta estiloaren ikuspegi gairiditu bat dago guzti honen atzean *zer* esa eta *nola* esan elkarregandik banatu litezkeen eta bata bestearekin zerikusi handirik gabekoak direla ustea nabari da jokabide honetan. Orixeren “esentzialismo” honek desegin egiten du literatur obrak jatorrizkoan duen indar adierazkor-estilistikoa, zenbaitetan kontzeptuak berak ere murriztuz eta soilduz. Jakina, alboan dagoen latina alde batera utziz gero eta euskarazkoa bere horretan irakurriz gero testu erraz, atsegin eta ulergarria gertatzen da, baina latinez irakurtzen duenak alde nabarmenak aurkitzen ditu bien artean.

Nekez onar daiteke “**Meza-Bezperak**” obraz ari dela Ibinagabeitiak dioena bere horretan: “*Idazte-uneko atalak errex bezin zintzo itzulita daude, otoitzak zer esanik ere ez, latinari orpon-arpo iarraituz izkuntza bietatik batere saldu gabe*” (8). Agian, erraxago zaigu Eliz-goratzarreetan ageri duen “*Virtuosismoa*”

(7) Orixe, “Urte guziko meza-bezperak”, 1950, Zarauz. 158. orrialdea.

(8) Op. cit., 109 orrialdea.

aitortzea, jatorraren neurrian itzulita daudela kontutan hartzen badugu. Hone-tan ezagutu beharra dago Orixeren trebetasun aparta, eta beste testuetan ez bezala edukinaren ere aski baliakide ageri dira bi testu-motak.

Azkenik, eta gain begiratu hau bukatzeko, ikus ditzagun “**Agustin Gurena-ren Aitorkizunak**” obraren lehen liburuko zenbait txataletan Orixek egindako aukerak. Orixek berak itzulpen honetaz esana aintzakotzat hartu behar badugu berak egindakoen artean onentxoentzak zeukan, eta *euskera sakonago* ikasi nahi zutenek bertara jo beharko zutelakoan zegoen.

“*Confessiones*” obraren lehen liburuko lehen atalean jatorrizkoak dio: **Et laudare te vult horno, aliqua portio creaturae tuae?** Orixeren itzulpena: “*Eta goretzi nai zaitu Zure sorkari duzun gizontto onek?*”

Aurreraxeago jatorrizkoak dio: **Et tamen laudare te vult horno, aliqua portio creaturae tuae.** Orixeren itzulpena: “*Alare, goretzi nai zaitu duzuntto onek*”.

Jatorrizkoak zehatz-mehatz esaldia errepikatzen duelarik, Orixek bere abileziaren erakusketa egiten du inolako premiarik gabe. Ikuspuntu estilistikotik nekez onar daiteke hautazkotasun hau.

Aurreraxeago dio: **Tu excitas, ut laudare te delectet, quia fecisti nos ad te...** Zerorrek naragizu, *Zu goxoki gorestera, izan ere Zuretzat egin gaitu.*

Jatorrizkoan “Hominem” litzateke **excitas** aditzaren osagarria, eta Orixek “me” balitz bezala itzultzen du.

Kapituluaeren amaieran: **Invocat te, Domine, fides mea, quam dedisti mihi, quam inspirasti mihi per humanitatem Filii tui, per ministerium praedicatoris tui.**

“*Nere sinesteak deitzen zaitu, bai; adierazleen bidez Zure Seme Gizon egiñak piztuerazi didan sinesteak.*”

Ikusten denez latinezko **quam dedisti mihi, quam inspirasti mihi** “piztuerazi didan” aditz bakarriz itzultzen du, era berean, **per humanitatem Filii tui, per ministerium praedicatoris tui-ren** itzulpena ere estilistikari dagokionean murriz geratzen da latinezkoaren aldean. Halere, ideia zuzen emana dago, literaturtasunari galera sortu zaion arren.

Beste behin ikusten dugu, ale banaka batzu bakarriz aztertuta, Orixeren itzulpen joera iraunkor samarra dela eta ia beti ezaugarri berdin samarrak ageri dituela ia beti.

Orixeren itzulpenak aztertuta, ez da garbiegi ageri non dagoen euskal testu bat idaztearen eta erderazko testu baten itzultzearen arteko muga. Euskalgintza integratu baten partaide dira bere kabuz idatziak eta euskaratuak. Erabat sinetsirik ageri da euskararen berezko gaitasunez: “*Nekazarien eta ikaskiñen izkuntza ain olakoa denik (ain egokia) uste al-du norbaitek?*” (...) “*Edozeinek ikus dezake, itsurik ez badago beintzat, gure izkera antze-izkera dela*” (9). Funtsean, forma eta edukian arazo handirik gabe bereiz daitezkeelako literaturaren ikuspegi gaunditua darabilela esan liteke, are gehiago, batzutan esan liteke gutxietsi eta arbuia egiten duela erdaren erretorika mezaliburua-ren sarrera iradokitzen duenez, traba egiteko bestetarako ez bailitzen. Ikusmolde honekiko leiala den neurrian, itzulpena egiterakoan ageri duen joerak mauslearena gogorarazten digu. Zorigaitzez, ebakitzen dituen aldaska eta kimu horietan ere bizia galtzen du testuaren zuhaitzak eta murrizturik ageri da itzulpena jatorrizkoaren aldean, nahiz eta euskaraz eskaintzen digun testua sarritan bere horretan aberatsa eta atsegina izan.

(9) Lenengo Euskal Eguretako Itzaldiak, Bilbao, 1922, 36-37 orr.

Orixe eta Itzulpen-joera desberdinak

Itzulpen-motak eta praktikak historian zehar nolakoak izan diren oraindik zehazki aztertu gabe dagoen arren, eta aurrelan agortzaile baten gabeziak derrigorrean eskatu duen behin-behinekotasunarekin bada ere, oro har, lau bat joera nagusitan sailka daitezke munduan, bereziki Mendebaldean, betidanik egin diren itzulpenak: *itzez-hitzeako itzulpena*, *zentzuzko itzulpena*, *izulpen librea* eta *itzulpen egokia* (adéquate) (10).

Orixeren itzulpena nonbait kokatu behar bagenu *zentzuzkoan* jarri beharko genuke. Historikoki “zentzuzko” itzulpen hau gure kristau-eraren hasiera alde-ara sortu zen literatura laikoaren eremuan gero eta gehiago itzulpena sartu-ala eta hasieran burutzen zen hitzez-hitzeako itzulpen “teologikoaren” gaintitze bezala ikusi behar da. Itzulpen-mota honen helburua da jatorrizkoaren zentzu orokorra bigarren hizkuntzako edo xede-hizkuntzako erregelen arabera ematea. Bistan dago aurrerapauso nabar-mena dela hitzez-hitzeako itzulpenarekin konparatuz gero, baina testuaren formarekiko zabar agertzen denez gero ezau-garri historiko, sozial, nazionak eta indibidualak desagerrerazen dizkio jatorrizkoari eta hitzez-hitzeako itzulpena bezala, ez da gai itzulpen aldeazina emateko.

Ciceron jotzen da itzulpen-kontzepzio honen oinarrien ezarletzat. Demostenes eta Eskinesen **Hitzaldiak** itzultzean, bi mila urtez itzulpenaren alorrean nagusi izango zen arazoa planteiatu zuen: testuko hitzei ala testuaren edukinari zor zaio leialtasuna? Hona hemen Ciceronen hautapena: *“Hitzaldiak itzultzean ez naiz aritu itzultzaile soilaren gisa (ut interpres) baizik eta idazle bezala (sed ut orator), bertako fraseak errespetatuz, hitz eta pentsamentuzko irudiekin, baina gure ohitura latindarrei dagozkien berbak erabiliz. Beraz, ez dut hitsez-hitze itzuli beharrik izan (verbo verbo redere); baina halere osorik gorde dut funtsezko adierazia eta hitz guztien esanahia (...) Izan ere, irakurleak, ez hitz hauen kopurua baizik eta noalbait esateko, pisua ematea nahi duela uste bait dut (non enim ennumerare, sed tanquam adpendere)”*.

Handik gutxira, Horaziok gauza bera errepikatzen du bere **“Epistola ad Pisones”** obran: *“Nec verbum verbo curabis reddere fidus interpre?”,* nahiz eta oraingoan ia itzulpen “libre” deituko genukeenera gehiago hurbiltzen zen poeta.

XII. mendearen azken aldera, itzultzaile arabiar eta ebartarregandik jasotako esperientzia luze eta aberats hau bildu eta Ciceron, Hieronimo eta abarren ildotik eskaintzen du Maimonides filosofo handiak ere: *“Hizkuntza bate-tik bestera itzuli nahirik, eta hitz jakin bat beste hitz jakin batez bakarrik eman nahi badu, neke handiak hartu eta itzulpen lauso eta nahasgarria eskainiko du. Bide hau ez da egokia: itzultzaileak pentsamentuaren bilakabidea argitu behar du, beste hizkuntzan argi ulergatri geratzeko moduan eman eta adierazi pentsamentu bera. Honetara iristeko, aurretik edo atzetik dagoen guztia zeharo aldatzea beharrezkoa izaten da batzutan, termino bat hitz gehiagorekin eman ez, edo hitz batzu bakarraz, zenbait esamolde alde batera utziz eta beste zenbait gehituz, pentsamentuaren garapena zeharo argi eta ordenatutik geratu arte, eta adierazpena bera ulergarri gerta dadin, itzultzen deneko hizkuntzak berezkoa balu bezala”*.

(10) LJUDSKANOV A. *Traduction humaine eta traduction mécanique*, Paris, 1961.

Martin Luterok, XVI. mende osoko itzultzailearik garrantzitsuena izan zenak eta Biblia alemanierara itzuli zuenak ere, iritzi berdintsuak agertzen ditu bere “*Sendbrief vom Dolmetschen*” (1530) ezagunean (11). “*Latinezko hitzei ez zaie eskatu behar nola hitzegin behar den alemanieraz. Etxekoandrea, kaleko haurra, azokako gizonarengana jo behar da, nola hitzegiten duten ikusi eta haien irakatsia errespetatuz itzuli, zeren hala bakarrik ulertuko bait dute, eta alemanieraz ari zaien ustea izango bait dute*”.

Halere, urte beretsuetan Etienne Doleti frantsesak eskaini zuen lehendabizikoz bost puntutan itzulpen-mota honen aurre-formulazio bat. Hona hemen laburbilduz haren ideiak:

- Itzultzaileak zehatz ulertu behar ditu itzultzen ari deneko autorearen edukina eta asmoa.
- Itzultzaileak zehatz ezagutu behar ditu sorburu hizkuntza eta hizkuntza hartzailea.
- Itzultzaileak ihes egin behar du hitzez-hitzezko itzulpenetik, horrela jokatzea jatorrizkoaren esanahia desagitea eta adierazpenaren ederra alferrikaltzea bait da.
- Erabilpen arrunteko hizketa formez baliatu behar du itzultzailea.
- Itzultzaileak hitzen hautapena eta ordenaren bidez, tonu egokia duen ondorio orokor bat lortu behar du.

XVII eta XVIII. mendeetan, aldiz, Bibliaren itzultzaileak artean arretaz eta kontu handiarekin zebiltzan bitartean jatorrizkoaren esamoldeetatik urruntzeko, gai profanoen itzultzaileak ia mugarik gabeko askatasunarekin jokatzeko zuten. Halere, denek ez zituzten itzulpenetat hartzen klasizismoaren garaiko “*Les belles infidèles*” deituriko hauek. Dryden ingelesarentzat “parafrasea” deitzen duena da benetakoa; aldiz *metafrasea* (hitzez-hitzezkoa) eta *imitazioa* (librea) ez ditu onartzen halakotzat.

Klasizismoaren ondoren erromantizismoa etortzean “itzultzea merezi duen ezer ezin daitekeela itzul” dioen sofistikazio-giroa sortzen da; hizkuntza eta nazio-sentimenduak indartu-ala, klasizismoaren absolutismo estetikoa ahultzen hasten da eta “*les belles infidèles*” deituriko itzulpenek gero eta kritika gogorragoak hartzen dituzte. Garai honetan hitzegiten du Goethek ere *itzulpen integralaz*, adierazia ezezik prozedura erretorikoak, jatorrizko testuaren osagai metriko eta erritmikoak alemaniaratuz eta girotuz ematen dituen (*eindeutschen*). Oro har, esan liteke, Goetheren hau izan zela itzulpenaren teoria moderno bat sortzeko lehen ahalegina, gure sailkatzearen arabera *egokia* (adéquate) deituko genukeena, Ljudskanoveekin-juitz batera.

Gaingiroki eman dugun prozesu historiko honen urratsak alde edo moldez eta kronologia desberdinarekin ia hizkuntza guztien baitan gertatu direla esatera ausartuko nintzateke. Errusiari dagokionean, esate baterako, artikulu interesgarri bat dakar Sergej F. Gončarenko, hispanista eta itzultzaileak bere obra baten amaieran (12) “**Poeticeskij Perevod v Rosii**” (Itzulpen poetiko Errusian) titulupean. Bertan esten digu nola “*joan den mendeko bigarren hamarkadara arte, poeta itzultzaileak finkaturik zeukan bere jomuga estrategi-*

(11) STORJIG, H. J. (Hrs.) Das Problem des Übersetzens, Darmstadt, 1972, 14-32 or.

(12) GONČARENKO, Sergej-Ispanskaja poezija v russkich perevodach, Moskva, 1978, 936-953 or.

koa jatorrizko testua une hartako nazio-literaturaren premietara egokitzen, edukin berriz hornituz, ordura arte esperimentatu gabeko gai eta formaz aberastuz eta errusiar poesia europar poesiaren abangoardia bihurtuz". Egokitze lan hori "suharki" egiten ornen zen, sorkari arrotzak "gupidagabeki" errusiar ohituretara eta zaletasunetara egokituz. Honela aritu zen Zutkovskij poeta-itzultzaileaz ari dela Belinskij kritikariak **usvoit'** aditza darabil, *asimilatu, ekan-dutu* esan nahi duena. Bistan dago Orixek eta bere garaikide askok burutzen zuten itzulpen-lanari bete-betean dagokiola deskribapen hau eta **isvoit'** aditzaren adierazia. Gauza da, ordea, hizkuntzaren gaitasunean atergabe fedezko egintzak egin beharra eta beti erronka edo desafio-giroan itzulpena burutu premia aldatu egin zela hamar-hogei urteren buruan, errusiar poesia sendotu eta nagusitu-ala. Puškin bera arte itzulpenezko poesia garrantzizkoago bazen ere, harrez gero oreka aldatzen hasten da errusierazkoaren alde. Eta Gonçarenkok dioenez, itzulpen "ekandutzaileak" bere betebeharra bete zuen eta hil egin behar zuen.

Bapateko aldaketa gertatzen da itzulpen literarioaren helburu eta metodoen alorrean, aurreko joerei bagagozkie, "gure gustuetara egokitzea" jadanik ez da eragile, balazta baizik interpretazio poetikoaren arterako. "*Itzultzaileari —dio Puškinez— gero eta leialtasun handiagoa eta publikoarenganako txera eta ardura txikiagoa exkatzen zaio; Dante, Shakespeare eta Cervantes berezko itxurapean, eta bakoitzaren nazio-jantzitan ikusi nahi dira*".

Poesiaz esan den guzti honek prosari buruz ere balio beretsua duela esango nuke itzulpenari dagokionean. Funtsean hazte eta homologatze-prozesu beraren berri ematen du.

Azken ondorio gisa

Orixeren itzulpen zenbaiti eman diogun gainbegiratuak garbi erakusten digu, berorren itzulpengintzak ezaugarri iraunkor samar batzu izan dituela urteetan zehar eta Ljudskanov, traduktologo bulgariarrak egiten duen itzulpenjoeren sailkapenaren arabera, berak "zentzuzko" itzulpena deritzanean sartzen dela bete-betean. Lehenago esan dugunez, historikoki itzulpen *librea* eta itzulpen *egokia* (adéquate) deitzen aurretik sortu eta erabilitako itzulpen-joera da. Testu sakratuen itzulpen-joera hitzez-hitzezkoaren gainditze gisa erromatar klasikoek sortu zuten joera hau, areagotu egin zen XVI-XVIII bitartean artean bizirik zirauen erlijio-itzulpenari kontrajarriz klasizismoaren ideal estetikoaren eraginez, baina XVIII. mendeko lehen hamarkadetatik hasita, faktore askoren eraginez, joera berri bat hasten da garatzen. Joera berri hau —itzulpen egokia jatorrizkoaren ezaugarri historiko eta nazionalak errespetatzen dituelako nabarmentzen da eta berau da gaur egun munduko itzultzaileen artean gehien bat erabiltzen dena. Itzulpen *egokiaren* helburua da jatorrizkoa bere horretan transmitzea, bere formazko eta edukinezko batasunean. Berorri esker, eta lehen-dabiziko aldiz, mamitu da itzulpenak informazio aldaezina eman behar duela-ko testia jatorrizkoarekin alderatuta.

Itzulpen-joera honen lehen bultzalarien artean honako hauek aipatu behar dira: Leconte de Lisle eta de Littre Frantziar, Schlegel eta Schleiernmacher Alemaniar, Postheid, Polak Ingalaterran; Puškin, Gogol, Trediakovski, Belinskij, Turgenev, Txekhov etabar Errusiar.

Itzulpen egokiaren abiaburuak literatur obrei begira formulatuak badira ere hasieran, teoria hau sakondu eta zehaztu egin da itzultzaile-kopuru handiak gero eta itzulpen zientifiko, tekniko, dokumental... gehiago egitera zuzendu diren heinean. Aintzinatean oso itzulpen zientifiko gutxi egiten zen literarioen aldean eta itzulpen-mota honek ez zuen izan indarririk itzulpen-praktikari sakon eragiteko. Euskal Herrian, azken hamarkadatan nagusitu den joera kontutan hartuz (hezkuntza, administrazio etab.) argi dago munduan gertatu den prozesuarekin homologatzen ari garela eta, oro har, egiten den itzulpen-mota ere itzulpen *egoki* deitua dela. Arriskua bestaldetik desoreka sortzearena da, hots, itzulpen literarioa asko urritu da eta honek eragin distorsionatzaileak izan ditzake itzulpen-joeran. Distorsio hori literatur tradizioarekiko loturak erabat etetea eta “hizkuntz-sena” lausotzearen ildotik etor liteke. Zentzu honetan Orixeren lana eta ekarria oso baliagarri dira eta gaurko literatur itzulpenak badu non txertatua eta zer baliarazia, baina itzulpen-eredu gisa gainditurik dagoela aitortu behar dugu, aldi historiko berri batean aurkitzen garenez.

Amaitzeko, lehen aipaturiko Goncarenkoren artikulua bukaera aldatuko nuke guretzat gogoetagai izan litekeelako: *“Bistan dago, gure garai hauek ongien hartzen duten itzulpenari buruzko jarrera, Belinskij bezalako idazle handiena da, eta beraren ondoren etorri ziren Dobroljubov, Černysevskij, Michajlov eta abar bezalakoena, zeinek ahalik eta zehaztasunik handiena eskatzen bait zioten itzulpenari, hizkuntza ez zekitenentzat jatorrizkoaren ahal bezain ordezeko egokia gerta zedin eta aldi berean benetako poesi obra izan, bigarren mailako eta jatorrasunik gabeko izakera baten premiarik gabe. Dena besarkatzeko moduko itzulpen teoria bat sortzeko, gure garai honi dagokionez, iraganeko lan teoriko trinkoenek ere zituzten kontraesan guztiez gabetua, denbora luzea eta ahalegin sortzaile ugari behar izan da. Arazoak konpontzeko orduak sobietarren aroan soilik jo du, duen garrantziarengatik gobemua bera itzulpen literarioaz arduratu denean”*.

Espero dezagun, beren garaian Orixek egin zuen bezalako ekarpena eskainiz euskal itzulpengintzaren kateari urrezko maila bat gehiago erantsi ziotenen tradizioari gure gobemuak ez diola muzin egingo eta orain mende-erdi dela sobietarrek burutuaren pareko zerbait egiteko gai izango dela. Besterik gertatuko balitz, historia beti ez dela gartatzen **“magistra vitae”** uste izan beharko genuke.